



**27.806 pertsona artatu zituen Caritas Euskadik 2019an.**  
**Krisiaren aurreko zaugarritasunaren eta bazterketaren isla**  
**Caritas Euskadiren Memoria 2019**

2020ko ekainaren 10a.

Corpus Christi egunaren inguruan, Caritas Euskadik, erakundearen 2019ko memoria aurkezten du. Aurkezpena, martxoan hasi zen COVID-19ak eragindako osasun-krisiaren testuinguruan egin da. Krisi honek, gizarte gisa, gizarte-krisi bat eragin du, eta haren intentsitate guztia zein iraupena oso da zaila kuantifikatzen, eta larrialdia baino lehen zeuden gizarte-arrailak zabaldu ditu.

**FOESSA fundazioak eta Caritasek (FOESSA 2018) gure Autonomia Erkidegoan egindako Euskadiko gizarte-bazterketari eta garapenari buruzko II. Txosteneko datuen arabera, gure Autonomia Erkidegoan, 334.000 pertsona bazterketa-egoeran zeuden hainbat arazo pilatzearen ondorioz, hala nola: pobrezia larria, etxebizitza, langabezia edo enplegu oso eskasa, eta harreman eta laguntza sare falta. Beste 360.000 pertsona "gizarte geldituaren" eremuan zeuden, aukera falta, enplegu prekarioa eta eskasa, eta zalantza etorkizuna ezaugarritzat zituena. Biztanleria hau, beldur da "hurrengo astinaldiak gizarte-bazterkeriara behartuko ote dituen". Astinaldia hau iritsi da. Bi taldeek pandemiaren ondorioak pairatzen ari dira.**

Caritasek, bere gizarte-ekintzaren bidez, eragin handiagoa jasaten ari diren eta gizarte-desberdintasunaren eta urrakortasunaren egoera larriagotzen ari zaien pertsona horietatik gertu jarraitzen du. 2019an, **Caritas Euskadik, 27.802 lagun artatu zituen** (%57 emakumeak). Zeharkako onuradunengan gizarte-laguntza horiek duten eragina kontuan hartuta, 60.000 pertsona baino gehiagorengana iritsiko dela kalkulatu da. Era berean, 2019an, Caritas Euskadik, **3.727.724 euroko zuzeneko laguntza ekonomikoak eman zituen oinarritzko beharrak asetzeko**. Hori guztia **3.773 boluntarioen konpromiso solidarioari esker** (%74 emakumeak).

**2019an artatutako pertsonak**

<b>EUSKADI</b>	<b>ARABA</b>	<b>GIPUZKOA</b>	<b>BIZKAIA</b>
<b>27.806</b> <i>(%57 emakumeak)</i>	<b>5.988</b> <i>(%64 emakumeak)</i>	<b>8.461</b> <i>(%55 emakumeak)</i>	<b>13.357</b> <i>(%55 emakumeak)</i>

**2019ko boluntarioak**

<b>EUSKADI</b>	<b>ARABA</b>	<b>GIPUZKOA</b>	<b>BIZKAIA</b>
<b>3.773</b> <i>(%74 emakumeak)</i>	<b>874</b> <i>(%70% emakumeak)</i>	<b>962</b> <i>(%65 emakumeak)</i>	<b>1.937</b> <i>(%81 emakumeak)</i>

**2019ko laguntza ekonomikoen zenbatekoa**

<b>EUSKADI</b>	<b>ARABA</b>	<b>GIPUZKOA</b>	<b>BIZKAIA</b>
<b>3.727.724 €</b>	508.030 €	1.722.885 €	1.496.808 €

Lehen ere egoera txarrean zegoen biztanleria horren gain daude gaur egungo krisiaren ondorio nagusiak: konfinamendu-neurriek eragindako isolamenduaren **eragin emozional eta psikologikoa**, adin txikikoak dituzten familiei **hezkuntza-laguntza emateko zailtasunak**, laguntza publikoak eskuratzeko zailtasunak **prozedura telematikoak** modu orokorrean ezartzeagatik (**haustura digitala**), **enplegua galtzea** (kasu askotan prekarioa eta informala), eta **etxebizitza-gastuei aurre egiteko zailtasunak eta etxegabetze-arrisku handia**, batik bat alokairuzko etxebizitzak, eta **bakardade nahigabe** handia.

Gizarte-errealitate honek, ondorengo honetarako gizarte osoaren **konpromiso partekatua** eskatzen du:

Herritar guztien eskubide sozialak bermatzen dituzten **sistema publikoak indartzea**.

**Sare komunitarioak indartzea**, gizarte justu eta kohesionatuago bat eraikitzeko aldaketaren eragile gisa.

**Giza balioak indartzea**, “ahul edo gizarte-bazterketa arriskuan dauden pertsona ‘bazterkin’ ugariak saihesteko” (Nafarroa eta Euskadiko Gotzainen Gutun Pastoral bateratua).